

berria

SERIA
FRANCO HIL ZEN, ETA...

Azaroaren 20 hartako
ospakizunak

EUSKAL HERRIA | 4-5

Ertzainek ukatu egin dute Zabarte ostikoz jo zutela, nahiz eta bideoan kolpea ikusi

- Iaz Anoeta estadio ondoan buruan jo zuen poliziak epaileari esan dio estropezu egin zuela.
- Ertzainburu batek adierazi du ez zutela foamik jaurti, eta iradoki du Amaya Zabarte harri batekin jo zutela.
- Maria Martinen auzia ere ari dira ikertzen: begian jo zuten.

EUSKAL HERRIA | 9



'IKIMILIKILIKLIK VOL 2.': LOKARRI BAT DUELA 50 URTERA

Mikel Laboaren, Artze anaien eta Jose Luis Zumetaren ikuskizunarekin «zubi bat» egin du Loraldiak, eta hilaren 14an estreinatuko dute.

KULTURA | 30-31

Ikimilikiliklik Vol. 2-ren aurkezpena, atzo, Urnietan. MIKEL MARTINEZ DE TRESPUNTES / FOKU

Hitzarmena berritu dute Jaurlaritzak eta Euskal Elkargoak

Imanol Pradales Eusko Jaurlaritzako lehendakariak Jean Rene Etxegarai Euskal Hirigune Elkargokoa hartu du Ajuriaenean, bi instituzioek 2019an sinatu zuten lankidetzaren ituna beste bost urterako luzatzeko. EUSKAL HERRIA | 7



Imanol Pradales eta Jean Rene Etxegarai, atzo, Ajuriaenean. IREKIA

Erreferente euskaldunak behar direla nabarmendu dute futboleko euskal taldeek

Alaveseko, Athleticeko, Osasunako, Realeko eta Union Tuterako ordezkariak euskararen arloan egiten duten lanaren berri eman dute Nafarroako Parlamentuan.

KIROLA | 24

El Salvador: Bukeleren kartzeletan desagerrarazitako senideen bila

Salbuespen egoera baliatuta, Poliziak gazteak atxilotu, eta familiak ez dute haien berririk izaten. Nekazaritza eremuetan jarduten dute horrela, bereziki.

HARIAN | 2-3

→ Obra berriaren aurkezpena, atzo, Urnietan. MAIALEN ANDRES / FOKU

IKIMILIKILIKLIK TURA



Zubi bat 'Ikimilikiliklik'-etik gaur egunera

Iratxe Muxika Karrion

URNIETA— «Hau ez da omenaldi bat, ez da erreplika bat. Hau elkarrizketa artistiko bat da». Imitatzeko bainoago, erantzutako jaio da Loraldiaren ikuskizun berria: *Ikimilikiliklik Vol.2*. Baina ez da ikuskizun bat soilik, adierazpen bat da, Amaia Ozerin Loraldiaren komunikazio arduradunak esplikatu zuenez. Atzo egin zuten obraren aurkezpena, Urnietako (Gipuzkoa) Sarobe Arte Eszenikoaren Gunean.

Batzuek oroitu dute akaso, baina egonen da jakinen ez duenik ere. Duela 50 urte *Ikimilikiliklik* ikuskizuna sortu zuten Mikel Laboak, Artze anaiek eta Jose Luis Zumetak. Musika, poesiaz eta margolanez jantzitako emanaldi bat zen, baina gutxi batzuek bertzerik ez zuten izan hura ikusteko aukera. Euskal Herrian aurkeztu ondotik, urrunxe-

go eraman zuten obra: Veneziaiko Biurtekoraino.

Mugarri bat izan zen ikuskizuna, eta, haren urteurrena probestuta, emanaldiari erantzun bat ematea otu zitzaion Loraldiari. «Garbi genuen zer lortu nahigenuen», erran zuen Ozerinek: «Gizarteari eta bereziki euskal kulturari zer bait berezia eskaintzea».

Eta hasi ziren, beraz, hariak lotzen. Edurne Azkarate, Iñaki Salvador eta Oreka Tx taldeko Harkaitz Martinez de San Vicente eta Itziar Navarro lotu zituzten lehendabizi, eta lantaldea osatzen jarraitu zuten gero: Libe Kortazar abeslaria, Intza Alkain aktorea, Itziar Garaluze artista bisuala, Vanesa Santos argi diseinuetan aditua eta Mikel F. Krutzaga soinu espazioetan aditua.

Azkarate da proiektu honen zuzendaria, eta bazekien zeren bila zihoan: «Zubi bat eraiki behar zen iraganaren eta orainaren artean,

baina elkarrizketa bat izan behar zuen derrigor. Noski, ez elkarrizketa konfrontatibo bat, baizik eta kolaboratzailea», azaldu zuen. Alegia, jatorrizko testuak bere horretan utzi eta orainean lurren nahi zituzten, eta horregatik behar zen elkarrizketa bat, ikus-tekto nola funtzionatzen duten garai-ko testuek gaurko moldeetan.

Ez da omenaldi bat, ez, baina Intza Alkaini miresmen pixka bat dario garai hartako testuez aritzean: «Nire lagunei esaten diet etorri behar dutela, ze ikaragarria da orain dela 50 urteko testu horiek entzutea. Eder-eder-erak dira, eta pasada bat da guk horiek ahots goran irakurri ahal izatea». Ez dute testurik manipulatua, baina bai teke erranahia hagit bertzelakoa izatea gaur egun; garai berriek aldaketak dakartzatelako, bertzeak bertze. «Oso era gozagarrian sortutako ikuskizuna da, eta horregatik bakarrik mere-

zi du ikustera etortzea», gaineratu zuen.

Oinarriko galdera bati erantzutea zen lehendabiziko erronka, Azkaratek oroitu zuenez. «Zer da gaur egun abangoardia izatea? galdetzen genuen», eta aurkitu zioten erantzuna galderari: «Musika, poesia, dramaturgia eta zuzeneko ikus-entzunezkoak batzen dituen ikuskizun apurtzailea». Horixe da *Ikimilikiliklik Vol.2*, beraz.

Memoriari tiraka

Azalpen teoriko guztiak oholzaratzeko, baina, dokumentazio lana egin behar izan zuten aitzinetik, eta Azkaratek kontatu zuen nahiko kontu bitxia gertatu zitzaizela horrekin. Jatorrizko *Ikimilikiliklik* obra ikusi zuten hainbatengana jo zuten informazio bila, eta gauza bera erantzun zieten guztiek: «Ez naiz oroitzen». Gomutatzen zuten zer bait, ordea:

«Ikaragarria» izan zela. Azkaratek, orduan, zirrikitu posible bat ikusi zuen. «Sentsazioen bila joan behar genuen, horixe zelako guztiek oroitzen zuten gauza bakarra. Eta egia da diskoa entzuteak sentsazio pila bat sortzen dituela. Sentimenduek, sentsazioek eta irudimenak sortu dute obra hau ere».

Dei bidez jaso zuen Azkaratek emanaldia sortzeko enkargua, eta «ilusio handia» egin ziola aitortu zuen. Baina ilusioa edukitzea ez zen aski harentzat, eta ongi pentsatu zuen lan hori zintzoki egin zezakeen edo ez. «Zer egin baino gehiago, pentsatu behar da nola eta norekin egingo den». Baiezkoa eman zion Loraldiari, eta ikuskizuneko jokalarri bakoitzera elementuak nola lurreratu pentsatzen hasi zen.

Musikarekin ere halatsu aritu dira: probatzen. Iñaki Salvador aritu da arlo hori gidatzen, baina

→ 'Ikimilikiliklik Vol.2' obra sortu du Loraldiak, orain 50 urte Mikel Laboak, Artze anaiek eta Jose Luis Zumetak egindako ikuskizuna bidelagun hartuta.

→ Azaroaren 14an estreinatuko dute, Iruñeko Baluarte aretoan.

Da Pro programaren zazpigarren aldia aurkeztu dute



Da Pro egitasmoaren aurkezpena, Bilboko BBK Salan. MIKEL MARTINEZ DE TRESPUNTES / FOKU

Pro proiekturako. Zehaztu zute-nez, aurten, bi profesionalek egin dute galbahe lana: Gorka Erostarbe BERRIAKO kazetariak eta Iñintza Orbegozo manager eta musika kazetariak, hain zuzen. Ondorengo artistak izan dira aukeratutakoak: Sueder, Sara Zozia, Gartxot, Jonkass, Hondora, Iargi, Maialen Ibarra, Xuxe Kerejeta, Euskal Barrok Ensemble eta Maider.

Musika Bulegoak, gainera, hitzarmena ere sinatuta du Zornotzako (Bizkaia) Gaztefest jaialdiarekin. Da Pron parte hartzen duten artistei deitzeko konpromisoa ezartzen du lankidetzaz horrek, baina kopururik zehaztu gabe. Edonola ere, iaz, esaterako, Durangon lanak aurkezten izan ziren hamar taldeen artean sei hautatu zituzten gero Zornotzarako.

Azaroaren 25ean zortzi emandiren berri jasoko dute programatzaileek. Familia guztiaren tzako emanaldiak dira. Besteak beste, Potx eta Lotx pailazoek, Josan Aramaio musikariak, Grama kolektiboak, Euskal Barrok Ensemblek eta Zurrunka Teatroak hartuko dute parte, eta Lanlu ekoizpen etxeak umeentzako bertsoingizarekin lotutako hiru proiektu aurkeztuko ditu.

Euskara hutseztokak dira Da Pron aurkeztuko dituzten familia ikuskizun guztiak, eta nagusiki euskara hutsez aritzen dira euren lanak aurkeztuko dituzten musikariak ere, nahiz eta baden euskara ez ezik beste hizkuntzaren bat ere erabiltzen duenik ere.

Hamar minutu

Durangoko (Bizkaia) Bizenta Mogel liburutegian egingo dituzte saio guztiak. Eta funtzionamendua antzekoa izango da bai musika proposamenei bai familia ikuskizunei dagokienez. Hamar eta hamabost minutu arteko tartea izango dute sortzaileek programatzaileei euren lana aurkezteko, eta elkarrekin hitz egiteko tarte batzuk ere izango dituzte gero. Sortzaile bakoitzak erabakiko du berea nola erakutsi: dela azalpen bidez, dela zuzeneko emanaldi labor bat eskainiz, dela bideo bat proiektatuz.

Parte hartzen duten artisten proposamenak katalogo batean bilduko dituzte. Durangora gerturatu diren programatzaileek eskura jasoko dituzte, eta azokaren webgunean ere jarriko dituzte. ●

«Azkenenean, sentisazioen bila joan behar izan genduen, horixe zela guztiak oroitzen zuten gauza bakarra»

EDURNE AZKARATE

Aktorea

«Belaunaldien arteko elkarriketa bat eta formatu handiko proposamenak sustatzen ditu»

AMAIA OZERIN

Loraldiko komunikazio arduraduna

onartu zuen «guztion artean» egin dutela lana. Txoria nuen maite diskoa argitaratu zuen Salvadorek 2023an, eta banan-banan aritu dira kantu bakoitza ikuskizunera egokitzten.

«Loraldiak beste urrats bat egin du euskal kultur sorkuntzan eragile aktiboa izateko bere misioan», erran zuen Ozerinek. Eta sinistuta dago ikuskizun berriak bete-betean egiten duela bat Loraldiaren balioekin. «Berrikuntzaren aldeko arituko dira oraingoz, baina hasiak dira handiago amesten, Ozerinen arabera: «Badakizue zer izango litzatekeen oso polita? Gure obra ere Venezialko Biurtelkora iristea».

Baina bertzelakoa da oholtzako kideen benetakoa ametsa: utz dezala arrasto bat euskararen edozein alorreran. «Gizon bat lagunek behartuta joan zen behin *Ikimilikilikilik* ikustera», oroitu zuen Ozerinek, «ez zekien euskaraz, eta badakizue zer esan zuen ikuskizunetik atera zenean? 'Euskara ikasi behar dut, zeren zerbait galtzen ari naiz hemen'». Horixe da, hain justu, Loraldiak lortu nahi duena, eta konbentziturik daude esku artean duten obra mugarri bat izan dela euskal kulturaren, orain 50 urte izan zen bezalatsu.

Atzo elkartu ziren leku horretan bertan eginen dute ikuskizunaren aurrestreinaldia, Sarobe Arte Eszenikoen Gunean, entsesgu eta bilera guztiak egin dituzten tokian; azaroaren 12an izanen da. Estreinaldia azaroaren 14an eginen dute, Iruñeko Baluarte aretoan, Iruñaldiaren programazioaren barnean. ●

- Artistek azaroaren 25ean eta 26an egingo dituzte aurkezpenak.
- Hamar musika taldek hartuko dute parte lehen egunean, eta zortzi familia ikuskizun aurkeztuko dituzte bigarrean.

Iñigo Astiz

BILBO— Zubigintza proposamen bat da, funtsean. Durangoko Azokak duela zazpi urte jarri zuen abian Da Pro izeneko programa, eta euskal sortzaileen eta kultur programatzaileen arteko topaketa profesionalak sustatzea izan du beti helburu. Aurten ere bi eguneko egitaraua antolatuko dute azokaren atarian. Hamar musikaririk hartuko dute parte azaroaren 25eko topaketetan, eta, ondoren, azaroaren 26an egingo dituzte familia ikuskizunaren aurkezpenak. Gerediaga elkarteak Musika Bulegoarekin eta Berbaro euskara taldearekin elkarlanean prestatu du programa, eta BBK fundazioa da babesle nagusia. Sortzaileek jada eman dute izena, eta programatzaileek azaroaren 21era arte izango dute horretarako aukera.

Aurreko aldietan, erakunde publikoetan aritzen diren langileak izan dira proiektuan izena eman duten programatzaileerik gehienak. Benaik Gaztelurrutia Gerediaga elkarteak kudeatzaileak, ordea, hori baino zabalago definitu nahi izan zuen atzo Da Pron izena eman dezaketen profesionalen profila: «Nabarmenezkoa da Euskal Herriko musika programatzaileen ugaritasuna: hor daude udalako teknikariak, baina baita ere liburategietako teknikariak, jai batzordeak, areto pribatuak eta beste. Askotariko

programatzaileak ditugu, beraz, eta guzti-guztiak daude deialdi honetara gonbidatuta».

Durangoko Azokak 60 urte beteko ditu aurten, eta, Gerediaga elkarteak ordezkariek gogoratu zuenez, esku artean darabilten proiektu gazteenetako bat da Da Pro. Zazpigarren aldia izango du aurtengoa, halere, eta, horregatik, koskortzen hasia den ume batekin alderatu zuen. Gaztelurrutia: «Da Pro da azokaren seme-ri edo alabarik txikiena, baina honezkerok ibiltzen ikasi du, eta badabil bere bidea egiten».

Orain artean egindako ibilbidea «oso positiboa» izan dela gehitu zuen. Eta, zehaztu zuenez, hain zuzen ere Durangoko Azokari lotuta egoteak egiten du berezi. «Ez da era honetako enkontrua bakarra, baina Durangoko Azokak batu dezakeen unibertso horretan egiten da, eta horrek izen emate batzuk eta mugimen izen sortzen du. Da Proren ostean Durangoko azoka dator, eta no-bedeakek aurkezten dira gunez gune hor ere, eta sortzaileek euren lanak aurkezteko modutzat erabiltzen dituzte gune horiek».

Hamar musikariak

Musika Bulegoarena da musikarierie eskainitako topaketak antolatzeko ardura. Aurtengoa 19 proposamen jaso dituztela zehaztu zuen Maddi Aranak, eta haien arteko hamar hautatu dituzte Da

«Askotariko programatzaileak ditugu Euskal Herrian, eta guzti-guztiak daude deialdi honetara gonbidatuta»

BEÑAT GAZTELURRUTIA

Gerediaga elkarteak kudeatzailea